

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko martxoak 6 • 117. zka.



Herrirako telebista:

Aretxabaletarako telebista sortzeko proiektua martxan da

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldi kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE • Tfnoa: 79 20 18

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

*30 urtez zure
ametsak
sortzen*

JATETXEAK, TABERNAK, KAFETEGIAK, PARKEAK, DENDAK,
BANKETXEAK, SUKALDEAK, BAINUAK...
BARRUALDE ZEIN KANPOALDEAN

BERRIKUNTZAK


Basabe Poligonoa, 4 EQ-11
Tel/fax: 79 01 51
Mugikorra: (908) 77 28 67
Partikularra: 79 74 26
20.550 ARETXABALETA



Zelan ikusten duzu Aretxabaletako telebista?

Mikel Bengoa
(Ikaslea)

Ondo. Herriko telebista bat sortzearen ideia ondo ikusten dut. Baina agian, Aretxabaleta ez da txikiegia izango telebista bat izateko? Hori bai, herrikoa bada, herriko hizkeran izan beharko litzateke.



Dominika Garmendia
(Etxekoandrea)

Bueno ideia ona izan daiteke. Gure herriko gauzak telebistan ikustea ondo legoke. Bietara izan beharko litzateke, guztiok ulertzeko. Baina euskara bultzatzeko izaten bada nahiago dut euskaraz izatea.



Pili Uribe
(Etxekoandrea)

Oso ondo. Ni eskoriatzarrarena izan eta han badaukagu telebista. Aretxabaletarako ere egoki ikusten dut, gauzak zuzenean ikusteko, notizien berri entzuteko... Nire ustez biliguen izan beharko litzateke.



Eduardo Urkia
(Jubilatua)

Gauza polita izango litzateke. Arrasaten ere badute eta hemen ere egin daitekeela uste dut. Herriko notiziak, elkarrizketak... botako nituzke bertan. Aretxabaletako hizkeran izan beharko litzateke.



e s k u t i t z a



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta etxean jaso nahi duzula?

Aretxabaletako informazioaz, eta herriko beste milaka kontekin hamabostero kaleratzen da Aretxagazeta.

Baina zuzen-zuzenean zure buzoian jasotzeko aukera ere badago. Nola? Aretxagazetako bazkide eginez. Urtean 1.500 pezetagatik Aretxagazeta etxeko buzoian izango duzu.

Horretarako, ondorengo laukia bete eta Aretxagazetako buzoira edo 151 postakutxatilara bidali beharko da. Telefonoz egin nahi izanez gero, deitu 79 01 05 telefonora. **Herriko aldizkariaren aldeko keinua egizu!**

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

KUTXA:

ZBK.

Aretxagazeta

Zuzenketa: Aurreko alean ermiten inguruko erreportaian, San Antonio ermita Untzilakoa zela jarri genuen. Untzilarako bidean egon arren, Gellao auzokoa dugu, Eskoriatzakoa beraz.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorbarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

❑ **Korrika kulturalaren inguruan hainbat ekintza egingo da gure herrian, kantu afaria, antzerkia...**

❑ **Korrika txikia arratsaldeko 3,30etan irtengo da Pausokatik**



Korrika martxoaren 17an, arratsaldeko 5ak inguruan, pasatuko da Aretxabaletatik

“Euskal Herria Korrika!” lemapean ospatuko da aurtengo korrika

“Euskal Herria korrika!” martxoaren 14tik 23ra bitartean ospatuko da, Arantzazun hasi eta Bilbon bukaera emanaz. Euskal Herri osoan zehar 2.100 kilometroko ibilbidea beteko du. Bederatzi egun horietan zehar, euskararen aldeko mezua zabalduko du Euskal Herrian zehar.

Aretxabaletatik martxoaren 17an pasatuko da, Arrasate aldetik arratsaldeko 5ak inguruan helduz. 6,30etan txokolatada egongo da Loramendiko lokalean. Korrika txikia, berriz, 3,30etan abiatuko da Pausoka haurtzaindegitik gora, herriko eskola eta Ortzadarren eskutik.

Korrika kulturala

Korrikarekin lotuta, hainbat ekintza antolatuko da gure herrian. Alde batetik, martxoaren 8 eta 9an korrikaren aldeko dirubatzua egingo da

kalean. Honez gain, martxoaren 14rako kantu afaria antolatu du Loramendi Elkartek. Herriko trikitilari eta kantu ikastaroan ibilitakoek alaiturik Urats-Alde elkartearen izango da. Gazteei zuzenduta egongo da eta hilaren 12a baino lehenago apuntatu beharko da Loramendi Elkartearen edo Arlutzen.

Zapatuan, berriz, Udalak antolatuta antzerkia egongo da Zaraia zineman. Kakalaldo taldeak “Nueva Zaragozako herritarrak” antzezlanaz plazaratuko du, gaueko 10,30etan hasita Zaraia zineman.

Korrika kulturalarekin jarraituz, domekan, hilaren 16an korrikako materiala saltzeko postuak jarriko dira kalean. Animatu gaitezen beraz, euskararen aldeko ekintza hauetan parte hartzera eta aurtengo lema dioen moduan euskararen alde korrika egitera ere bai.

Zuberoako ikastolentzako laguntza

Zuberoako ikastolek Maulen ikastola berria eraikitzeko bultzatu duten kanpainaren barruan, Loramendi elkarteak Aretxabaletan kontu korronte bat zabaldu du. Gura duen guztiak bere laguntza eman dezake kontu korronte horretan bere aportazioa eginez. Zenbakia: Euskadiko Kutxako 3035000215002026659. Kontu hau apirilaren erdi ingurura arte egongo da zabalik, bakoitzak ahal duen neurrian lagun dezan. Laguntza txikiena ere haundia izan daiteke Mauleko ikastola eraikitzeko.

Jaiak antolatzeko jai batzordea osatu nahi du kultura sailak

Udaberria heltzen ari dela eta berriro ere hemen ditugu udaldekoko jaiak, Ojala Zelai eta gero Andra Mari jaiak. Hauek antolatzeko jai batzordea bildu nahi du kultura sailak. Horretarako martxoaren 18an arratsaldeko 7etan egingo den batzarrerako gonbidapena luzatzen du herritar guztiontzat. Denon gustoko jaiak antolatu ahal izateko eta zure proposamenak luzatzeko beldur barik jai batzorde horretan parte har dezakezu.

Ofindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Ifnoa: 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako ofizina

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANIAK

ESKORIATZA

Tfno 714345


ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA



Arbizelain sondaren bidez lurra aztertzen ibili dira

Eibar-Gasteiz autopistaren ustezko trazaduan lurraren azterketak egin dituzte

Azken egunotan herriko hainbat lekutan sonda-makinen bidez lurra aztertzen ibili dira. Eibar-Gasteiz autopistaren ustezko trazaduan egin dira lurraren ikerketa hauek. Autopistaren gaia ahaztuta zegoela zirudien arren, proiektua aurrera doa eta sondeo hauen bidez azken lanak egiten ari dira. Hiru hilabeteren barruan proiektua publikora aurkezteko moduan izango dela adierazi du Debasa enpresak, autopistaren proiektua aurrera eramateko sortutako enpresak.

Enpresa honek azaldutakoaren arabera, autopistak herrian jarraituko duen trazadura oraindik ez da definitiboa. Hala ere, herriaren mendebaldetik joango da, Isurieta aldetik. Lortutako informazioaren arabera, bi tunel eta bi biadukto izango ditu herrian.

Jose Julian Irizar, garraio eta errepidetako Gipuzkoako Diputatuaren esanetan, proiektua atzeratu egin den arren, urtearen erdialderako bukatuko da, ondoren alegazioetarako epea zabalduz.

HBk aurkeztutako mozioa onartu

HBko mahai nazionaleko kideen kartzelaratzeari dela eta mozioa aurkeztu zuen HBk otsailaren 24an egin zen plenoan. HBko mahai nazionaleko kideen kartzelaratzeari salatzen zen bertan eta bide batez hauek libre uztea eskatzen zuen. Honez gain, Euskal Herria eta espainiar estatuaren arteko gatazkaren konponbidea elkarriketa bidez eta Euskal Herriaren eskubideen onarpenaren bidez etorri beharko litzatekeela ere azaltzen zuen. Mozioa aurkeztu ondoren bozketa egin zen eta mozioa onartuta gelditu zen HBko lau zinegotzieren aldeko botuaz eta gainontzeko zinegotzieren abstentzioaz.

Udal erroldaren berrizketa

Pleno berean, erroldaren azken berrikuntzak ere egin ziren. Iazko maiatzean, erroldaren berrikuntza lanak bukatzerakoan Aretxabaletak 5.943 biztanle zituen. Orditik hona 72 alta eta 67 baja gertatu dira. Horren ondorioz, 1997ko urtarrilaren lehen herriko biztanle kopurua 5948koa zen. Agertutako zinegotzi guztien aldeko botuekin udal erroldaren zuzenketa onartuta gelditu zen.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Matikua

jatetxea

Bertako mortzilak eta txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita

Azatza auzoa
ARETXABALETA

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

Meningitisak sortutako alarma dela eta lasai egoteko esaten du osasun zentruak

Azken hilabeteotan lagun asko joan da osasun zentzura meningitis gaixotasunak sortutako kezka direla eta. Egia esan, komunikabideen ahotan ibili den gaia da, eta itxura denez herritarrengan ere larritasuna sortarazi du.

Osasun zentruko, Marina Salazar pediatriak jakitera eman duenez, momentuz behintzat ez dago kezkatzeko arrazoirik: "Gure bailaran oraindik ez da meningitis kasurik eman, horregatik ez

dago larritzeko arrazoirik". Herritarrak lasai egoteko diote beraz osasun zentrukoek.

Sukarra, buruko mina, garondoko gogortasuna eta botaka egiteko gogoia dira meningitisaren sintomak. Edozein adinetan sor daiteke eta %10eko kasuetan ondorio larriak ekar ditzake. Oso kutsakorra ez den arren kasu bat agertzen den momentuan, inguru-rukoak gaixotasunetik prebeni-tzeko medikazioa eta txertoa erabiltzen dira.

"Laguntza harremana eta komunikazioa agurearekin" ikastaroa

Arrasateko ICTEK "Laguntza harremana eta komunikazioa agurearekin" ikastaroa antolatu du. Pertsona nagusien zainketa eta ardurarekin erlazioa duten profesionalei, arlo honetan hezitzeko interesa duten gazteei eta pertsona adinduak etxean dituzten familiei zuzenduta egongo da.

Ikastaroa martxoaren 10etik 20ra bitartean burutuko da Arrasateko "Instituto Comunitario de Tercera Edad"en egoitzan, arratsaldeko 5etatik 7,30etara bitartean. Izena emateko epea martxoaren 8an bukatuko da. Informazio gehiago 79 02 11/77 05 00 telefonoetan.

Larrialdietarako tailerra

Kurtzebarri eskolako 4, 5, eta 6. mailakoek Gurutze Gorrikoen lana eta hauen anbulantzia aztertzeko aukera izan zuten joan den astean. Hizkuntz tailerraren barruan, azken asteotan euskararen erabilera indartzeko hainbat ekintza burutzen etorri dira, horien artean larrialdietarako tailerra. Tailer honen azken osagarri moduan, anbulantzia aztertu zuten: emisora, barruko elementuak eta kanpora ateratzen diren elementuak, kamila...




ARGI-PLASTIC
Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



**BASTER-ALDE
JATETXEA**

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETAKO

◆ Parrila
espezialitatea



GOYARAN ERRETEGIA


Solohaundi-8 ARETXABALETAKO Tfnoa: 79 68 57



EGUZZKIGRAF

inprimategia

Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941
ARETXABALETAKO



Sasiak kendu eta zuhaitzak landatuko dira Urkulun

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro saila, sasiak kentzen ari da Urkulu urtegiaren aldemen batean. Ingurua txukun-txukun utzi eta bertan zuhaitzak landatzeko asmoa dago. Mota desberdinetako zuhaitzak: haritzak, keixak... Horrela, beste hamar bat egun barru dena txukun eta zuhaitzak landatuta egongo direla adierazi du Imanol Artola basozainak. "Beste 10 egun barru zuhaitzak landatuta egongo dira eta pixkat hauek hazi artean itxitura bat jarriko da inguruan".

Bertan pilatutako sasiak erre egingo dira baina egun hauetako eguraldia dela eta momentuz ezin izan da horrelakorik egin.

Sutea deposito ondoan

Urkulura doan bidean, uraren depositoa dagoen inguruan bi sute piztu ziren pasatu den astelehenean. Ertzantzak jakitera eman duenez ez dira ezagutzen sutea sortu zuten arrazoi zehatzak. Ilunkarako 8,25etan hasi zen lehena. Sutea ez zen larria eta Diputazioko baso-

zainak itzaltzea lortu zuten.

22,40tan ostera berpiztu zen sua. Honako honetan suhiltzaileek ere hartu zuten parte eta goizaldeko ordu 2etarako itzalita zegoen.

Suteak 0,01 hektareako zatia erre zuen, sasiak gehienbat baina baita zuhaitz batzuk ere.

Aretxabaleta

Abesbatzaren batzar orokorra

Aretxabaleta Abesbatzak urteko batzar orokorra egin zuen otsailaren 13an. Bertan aurreko akta eta urteko balantze ekonomikoa irakurri ziren. 1996ko urtean zehar egondako ekintzak positiboki baloratu ziren, batez ere, EEBBetan emandako Gregoriano kontzertua eta gabonetan herrian eskainitako "Katiuska" opereta.

Azkoitiako Iraurgi

Abesbatzaren kontzertua

Etorkizunerako dauden asmoak ere azaldu ziren. Hauen artean, Aretxabaletako Abesbatzak eta Azkoitiako Iraurgi Abesbatzak egingo duten trukea aipatu zen. Azkoitiako Abesbatzak gure herrian Aste Santuko kontzertu bat eskainiko du martxoaren 15ean eta hilaren 22an berriz, Aretxabaletako Abesbatzak Azkoitian.

Guzti honez gain, Abesbatzaren zuzendaritza Batzordearen eraberritzea ere egin zen. Irten direnak: Aintzane Aizpurua, Jose Luis Errasti eta Ricardo Garro. Sartu direnak: Eli Barandiaran, Zorione Santamaria eta Eli Izagirre.

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

ARRLUTZ
TABERNA
MITARTE. 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Saretxo kultur elkarte

“Herritarrek erabili ahal izango duten ordenadore zerbitzua ipintzea da gure asmoa”

Informatikak gure artean duen indarra eta aurrera begira izango duen garrantzia kontutan hartuta, elkarri lotutako ordenadore sare bat sortzea pentsatu du herriko lagun talde batek.

Iazko martxoan sortu zen elkarte ofizialki, baina oraindik ezer gutxi egin dute. Udalak lokal bat utzi die eta herritarrek erabili ahal izango dituzten ordenadoreak ipini nahi dituzte bertan.

Herriko lau lagunek hartu dute Saretxo elkarte sortzeko konpromezua: Alberto Izagirre, Jon Axpe, Paulo Bengoa eta Iñigo Gonzalezek.

Herritarrei, informatika eta ordenadoreen munduaz gozatzeko eta ezagutzeko aukera ematea du helburu Saretxo elkarteak; herritarrek erabili ahal izango duten ordenadore zerbitzu bat hain zuzen ere.

Horretarako, elkarteak bazkide batzuk izango lituzke eta bazkide horiek zerbitzua erabili ahal izango lukete. Hori bai, Alber-



Alberto Izagirre eta Jon Axpe Saretxo taldeko zuzendaria eta zuzendariordea dira

to eta Jonek garbi utzi nahi izan dute irabazi asmorik bariko elkarte izango dela.

Gaur egun gehien erabiltzen diren Word eta Windows moduko programatik abiatuz, herritarrei hauek erabiltzeko aukera zabaltzeko asmoa du. “Etxe askotan ordenadoreak egon arren, sarri hauen erabilera ez da eza-

gutzen, erabilera kaskarra ematen zaie. Beste aldetik, nagusienek bildurra diete ordenadoreei. Gure sarea adin guztietakoei zuzenduta egongo litzateke”.

“Baina oraindik ezin dugu ezer eskaini” -diote-. Gogoia eta ilusioa bai baina ordenadoreak falta. “Momentuz Ederlanek emandako bi ordenadore ditugu. Leku askotara egin

dugu eskaera: enpresa, ordenadore enpresa, partikular... 20 bat ordenadore lortzea da gure asmoa. Zaharrak izan arren ordenadore on bati lotu eta erabilgarritasun haundiagoa eman diezaiokegu”.

Behin sarea sortu eta gero urrunago ere heldu nahi dute: internet sareak gaur egun duen garrantzia ikusita hau erabiltzeko aukera eskaintzea. Era berean, gure artean gehien erabiltzen diren testu programen inguruko klaseak antolatzekeo ideia ere azaldu dute.

Saretxo elkartekoek ilusioz beteriko proiektua dute eskuartean. Baina laguntza barik ezinezkoa dute aurrera egitea. Horregatik edozein laguntza ona da eurentzako. Edozein ordenadore pozik hartuko lukete, nahiz eta ezertarako ez dutela balio pentsatu. Taldeko zuzendariak, Alberto Izagirreaz, harremanetan jarri daiteke taldeari ordenadorerik eman nahi izanez gero: 79 10 51 telefonora deituta hain zuzen ere.

“Edozein ordenadore, nahiz eta ezertarako ez duela balio pentsatu, baliagarria da guretzako”

Aretxabaletako industrialdea, S.A.

“ARINSA”

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA

**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

**IMANOL
JANARI DENDA**

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

M A I T E
ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABALETA


**T
X
i
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

Gaurkoan gure artean dagoeneko ohikoa bihurtu den produktu batetaz hitzegitera natorkizue. PVC bezala ezagutzen dugun materiale honen benetako izena Poli Binilo Kloruroa da eta, hain zuzen ere, kloruro hori da polemika sortu duen ezaugarria.



PVCa gure etxeko edozein bazterretan aurki daiteke

PVCa: plastiko etsaia

PVCa gure etxeko edozein bazterretan aurki dezakegu, hala nola, tuberiarian, paretetako paperean, kableetan, teilatuen azpiko aislanteetan, leiho modernoetan,... Baina ekologiarekiko kaltegarria dela jakin denetik Europar herrialdeetan bere produkzio eta erabilera mugatzen hasi dira, eta zenbait lurraldetan dagoeneko merkaturtik desagertzeko neurriak ere hartu dituzte.

PVC ez erabiltzeko hainbat arrazoi

PVCa ekoiztea oso kutsagarria da ekologiararen eta osasunaren ikuspegitik, sustantzia organokloratuak askatzen bait ditu atmosferara. Honetaz gain berau eratzeko hainbat sustantzia lehegarri (kloroa, binilo-kloruroa,...) urrundik garraiatu behar dira, ekintza hau oso arriskutsua izanik.

Sarri gehigarri toxikoak izan ohi ditu PVCak. Gehigarri hauen toxizidadearen erantzule nagusiak metale astunak dira, esate baterako, kadmioa eta beruna.

PVCa birziklagaitza da, eta horregatik zabortegietara edota errauskailuetara bidali beharra dago. Errauskailuetan *dioxiak* askatzen ditu (sustantzia kantzerigenoak) eta zabortegietan berriz 1.600 urte behar ditu berez desagertzeko eta bitartean

inguruko lursail, landare eta animaliak kutsatzen arituko da.

Gaur egun

Arrazoi hauek kontutan harturik, Europako 300 hiri haundik eraikuntzetan PVCaren erabilera mugatzen hasiak dira, denbora laburrean baztertu ahal izango duten asmotan. Dagoeneko aurkitu dira PVCa ongi ordezkatzeko dezaketen hainbat materiale, adibidez **polietilenoa** edota **polipropilenoa**. Hauek ez dute klororik eta honetaz gain birziklatzen errazak dira.

Baina PVCaren aurkako gerra honetan guztiok har dezakegu parte, esate baterako PVCzko botilak ez erabiliz.

Nola bereiztu PVCzko botilak

- PVCzko botilak kolore urdinxka dauka.
- PVCzko botilan tolestu edo urratuz gero, marka zuria utziko du.
- Botilen azpikaldean *PVCaren irrifarra* nabari da, PVCrik gabeko botilek puntu bakarra dutelarik.

Mikel Arroia

Nola egin 5.948 lagunentzako telebista bat

Alboko horren oso antzeko esaldi bat erabili zuen behin Amatiñok -artean ETBko zuzendari zela-, euskerazko telebista bat egiteak zein muga dituen azaltzerakoan. Loramendi Euskera Elkartearen eta Aretxagazetaren ere kezka horrekin gabilta aspalditxoan:

Aretxabaletarako euskerazko telebista bat martxan jarri gura dugu. Proiektua eginda eta udalean aurkeztuta dago. Dirulaguntza, lokalak, tresneria, instalazioak... Gauza asko falta da, baina gogoia badago. Herritar guztion proposamenak ere beharrazkoak izango dira.


Aretxabaletarako telebista sortzeko proiektua martxan dago

Herrirako telebista sortzea da asmoa: euskerazkoa, Aretxabaletan bertan egin eta bertako gaietaz arduratuko dena. Herri telebista bat, 5.948 atxabaltarrentzako. Komunikabideek hizkuntzaren erabileran eta prestigioan duten inportantzia konturatuta, Loramendi Euskera Elkartearen lehentxo hasi zen gai honen inguruan lanean, herri telebista martxan jarri guran.

Izan ere, herriko kontuen berri emateaz gain, telebista honek beste helburu handi bat ere badauka: gure herri euskera normaltzea. Eta herri euskeraz kaleratzen den aldizkari bat eginda, Loramendik berehala bota zion gonbita Aretxagazetari, biek elkarrekin joan behar zutelana. Harrezkero, talde bien artekoa da Aretxabaletarako telebista proiektua.

Inondik ere telebista txikia izango da, haundinahirik bakoa eta kostu txikikoa. Hain gertu daukagun ATBekin konparatuz, ez da izango. Emititzen hasteko fetxarrik-eta ezin da oraindik aipatu. Dena den, proiektuak poliki-poliki hasteko asmoa dauka, gauza gutxitik gero eta gehiagora. Hori bai, egunero albistegi bat emititzeko erronkari eusten dio haseratik.

Horixe izango da gainera, programazioaren ardatza: albistegiak;



Aretxabaletarako telebistaren proiektua eta aurrekontua Udalean aurkeztuta daude, haien erantzunaren zain.

haseran irudi gutxiarekin seguruena. Herriko jendeari egindako elkarrizketek ere tarte inportantea beteko dute. Saio hauek guztiak Aretxabaletako euskalkian egitearen alde agertzen da proiektua, eta inportantzia handia ematen dio aspektu honi. "Herriko hizkuntza propio horren gordailu eta eredu izan liteke telebista", proiektuaren arabera.

Herri telebista edukitzeak, eta programazio bati eustea, lan handia eskatuko du. Eguneroko

lanerako langile bi kontratatzeko modua ikusten da proiektuan: bata kazetaria eta teknikaria bestea. Dena dela, kolaboratzaileek ere zeregin handia izango dute telebista honetan, batik bat albistegiez gain bestelako programak ere egiten hasi gura denean.

Telebista martxan jartzean, lokal berean izango dira Loramendi, Aretxagazeta eta telebista bera, elkarlanean. Lanerako funtzionalitateari begiratuta ez litzateke oso logikoa izango komunikabide ba-

koitza bere aldetik ibiltzea.

Proiektua eta aurrekontua udalean aurkeztuta daude, haien erantzunaren zain. 6,5 milioi pasatxokoa da aurrekontua, martxan hasteko. Hauetatik 3 milioi hase-rako inbertsionan egin beharrekoak dira: enlazeak, argiztagailuak, transmisorea eta bestelako instalazio guztiak. Loramendi prest dago haserako diru hau ipintzeko. Baina horiez gain beste 3,5 milioi eta inguru ere behar izango dira: langileak kontratatzeko, tresneria alokatzeko, lokalak egokitzeko eta behar den materiale guztia eskuratzeko.

Egitura berria

Aretxagazeta eta Loramendiren artean bultzatu beharreko proiektu honek, jakina, elkarlana eskatzen du. Horretarako, komunikabide biak elkarte bakar baten barruan sartzea dago aurrikusita: Zuzendaritza Batzorde berri bat osatu, eta hauen barruan telebista eta Aretxagazeta, bakoitza Erredakzio Kontseilu banarekin. Bestela esanda: oraingo Aretxagazeta Kultur Elkarte "aldizkariarena bakarrik izan beharrean, herriko komunikabideen elkarte bihurtzea. Elkarte honetako bi atalak Aretxagazeta aldizkaria eta telebista izango dira".

Zuzendaritza Batzordea eta telebistaren Erredakzio Kontseilua osatuta eta lanean hasita daude. Erredakzio Kontseilu bakoitzeko bi kide Zuzendaritza Batzordeko kide ere badira.

Organigrama edo antolaketa berri honek, Aretxagazeta Kultur Elkartearen estatutuak aldatzea



Zuzendaritza Batzorde berria eta telebistaren Erredakzio Kontseilua osatuta eta lanean hasita daude.

Telebista txikia izango da, haundinahirik bakoa eta kostu txikikoa. ATBrekin konparaziotan hasteko ere ez da izango.

eskatzen du, aldizkaria egitura berri horretan sartu dadin. Aretxagazetako bazkide guztien adostasunarekin eta laster batean egin beharreko aldaketa izango da hori.

Telebista honek oraindik ez dauka izenik, eta lehen bait lehen komeni zaio. Izen egoki edo politen bat okurritu ezker, ez gorde ixilean. Proposamenak Loramendi Euskera Elkar-teak herriko denda eta tabernetan ipiniko dituen buzoietan utzi daitezke, edo bestela Aretxagazetako buzoian bertan, edo Loramendiren egoitzara bidali. Izena, telebista izan beharrean telebisinoa ere izan daiteke.

Unai Loidi

Mitartegarai
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

Pelikularik hoberenak

**DON
BIDEO**

Lezama Merkatal zentrua
ARETXABALETA

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

Loramendi literatur lehiaketan saritutako lanak

Loramendi literatur lehiaketako saritutako lan batzuk aurkeztuko ditugu gazteen txoko honetan. Kasu honetan DBHko 1.go zikloko poesia bat dugu begien aurrean. Idurre Arbulo 13 urteko neska dugu poesia honen egilea. Guztira 11 lan aurkeztu ziren maila honetan eta Idurrek idatzitako poesiak lehenengo saria eskuratu zuen. Hona hemen Idurreri egindako elkarrizketa eta aurkeztutako poesia:

Idurre; lehenengo aldia da Loramendi literatur lehiaketara aurkezten zarena?

Ez, urtero aurkeztu izan naiz.

Eta sari bat irabazi duzun lehen aldia da?

Lehenengo saria irabazten dudan lehen aldia da. Beste urte baten lagun batek eta biok aurkeztu genuen ipuin batekin bigarren saria eskuratu genuen.

Espero zenuen irabaztea?

Egindako poesia asko gustatzen zitzaidan, espero nuen sariren bat irabaztea baina ez lehenengo saria.

Baduzu idazteko ohiturarik?

Egia esan ez dut idazteko ohiturarik.

Kasu honetan poesia bat aurkeztu duzu. Zer duzu nahiago poesiak ala ipuinak idaztea?


Poesiak. Samurragoa da nire ustez poesia bat idaztea eta imaginatiboagoa eta fantasia gehiagorekin idatzi daiteke.

Zer kostatu zitzazun gehien?

Gaia aukeratzea. Behin gaia pentsatu eta gero samur egin nuen.

Eta gaia nola bururatu zitzazun?

Hasiera baten Euskal Herriaren inguruko poesia bat egitea pentsatu nuen baina gero zailegia iruditu zitzaidan eta neguaren inguruko poesia hau egin nuen.



Idurre Arbulo

Negua datorrenean

Atarian xirri-xirri ipar haizea mezulari denoi nahi digu ohartarazi negu hotza datorrela azkar eta arin. Dena geldituko da irina bezain zuri hariztia berriz triste bezain bakarti, kantari zebiltzanak isildu dira jadanik, eta basoaren isiltasunean eman zaio bidea neguari. Xirri-xirri haizea badoa mezulari.

BBQ Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA

Txirrinduaren gainean jartzeko gertu



Aurkezpena egin ondoren denboraldia hasteko gertu daude Dorletako Ama txirrindulari eskolako txirrindulariak

Dorletako Ama txirrindulari eskolak aurtengo denboraldirako aurkezpena egin zuen otsailaren 22an Gatzagan. Goizeko 10,30etan txirrindulariak entrenatzaile eta zuzendaritza batzordeko kideak Dorletako santutegian elkartzu ziren, Dorletako ama txirrindularien zaindariari lore eskaintza egiteko. Ondoren Gure Ametsa jatetxera zuzendu ziren guztiak txirrindulari eta babesleen aurkezpenari hasiera emateko.

Guztira lau talde izango ditu aurtengo Dorletako Ama txirrindulari eskolak. Gazteenak infantilak, 11 txirrindularik lehen eta bigarren mailako infantiletan hartuko dute parte. Arrasate kirolak dendaren izena jantziko dute eta talde honetako zuzendariak Jabier Lazkano eta Dionisio Mera izango dira.

Bigarren urteko kadeteetan, 7

txirrindulari izango ditugu. Hauen zuzendaria Jose Galan izango da eta babeslea berriz, Alejandro Altuna.

Lehen eta bigarren urteko jubentiletan berriz, 23 txirrindularik hartuko dute parte. Zuzendaritza Luis Sebastianek eramango du eta babeslea berriz Fagor izango da.

Zuzendaritza batzordean berriz, lehendakaria Ane Josu Guede da, Jose Mari Roldan zuzendariordea, Amaia Muguruza idazkaria, sendagile lanak egingo dituena: Alberto Garai eta prestatzaile fisikoak Juan Ignazio Errasti, Alex Iturbe eta Jose Luis Eraña izango dira.

Datorren astebukaeran hasiko dute denboraldia txirrindulariek. Iazkoa urte ona izan zen eskolako txirrindularientzat eta aurtengoa ere hala izatea espero dute. Ilusio haundiarekin hasiko dute behintzat denboraldia.

Matilde Garaik aipamen bereziaren saria jaso zuen

Otsailaren 26an Aukea sariak banatu ziren Arrasaten. Horien artean Matilde Garaik aipamen bereziaren saria jaso zuen, atletismoan egin duen lanagatik. Matilde Garai, 1970. urtean hasi zen atletismoan, 16 urte zituela.

14 urte eskaini dizkio kirol honi eta denbora honetan krosean eta baita pistan ere makina bat lasterketetan parte hartu du. Zorionak.

Arrasate Txirrindulari Elkarteak aurkezpena

Otsailaren 26an aurkezpena egin zuen afizionatu mailako Arrasate Txirrindulari Elkarteak. Taldeak bigarren urtea du aurtengoa. 19tik 22 urtera bitarteko 19 txirrindularik osatuko du taldea eta babesleak Born eta Jay izango dituzte. Aretxabaletako txirrindulari bakarra dago bertan: Iban Sastre hain zuzen ere. Zuzendaritzan bi atxabaltarrek jarraitzen dute: Josu Estevez dugu zuzendaria eta Eneko Garai zuzendariordea. Esan beharra dago, Aukeak ematen duen taldearen saria eskuratu duela Arrasate Txirrindulari Elkarteak. Alde horretatik zorionak eta zorte on aurtengo urterako.

LASA AGULERA
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

SEGIROS LAGUN ARO
ASEGURUAU

Euskadiko Kutxa
Taldekoea

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

lurdes intxausti



“Euskal Herri mailan aktore lanetik bizi izatea zaila da”

ETBn behin baino gehiagotan ikusi dugu Lurdes Intxausti idiazabaldarra. Gaur egun kiroldegi batean lan egiten du egun erdiz eta telebistan ordezkapen bat egiten ari da. Aurrekoan Kurtzebarri eskolan izan genuen umeei casting-en inguruko saio bat ematen.

• **Zertan etorri zara Kurtzebarri eskolara?**
Castingen inguruan hitzegitera. Azken finean, zinea, telebista,... dena nahasi dugu.

• **Zer moduz joan da?**
Oso ondo. Gustora egon gara.

• **ETBn lan egin duzu. Orain zertan ari zara?**

“Ikusgela” saio berri bat hasi da eguerdian eta ordezkapen batzuk egiten ari naiz. Sketx motz batzuk.

• **Zela hasi zinen ETBn?**
Casting baten bidez. Galaktika programan hasi nintzen lanean, baina robotaren barruan nengoen. Gero Jose Felipe Auzmendirekin 22ra programan egin nuen, eta Goenkalen Lolaren pertsonaia interpretatu nuen.

• **Aktore lana gustoko duzu?**
Bai, asko, baina gaur egun Euskal Herrian aktore lanetik bizi izatea zaila da.

• **Goenkalek arrakasta galdu duela uste duzu?**

Nire ustez pixkat galdu egin du. 500 kapitulu egin dira dagoeneko eta interesa eta audientzia mantentzea zaila da. Kalitate eta lan aldetik hobetu egin duela uste dut, esperientzia bat dago tartean eta.

• **Gustoko kolore bat?**
Morea eta naranja ere bai.

• **Etxean bakarrik zaudenean zer**

egiten duzu?
Sukaldean ibiltzea gustatzen zait edo bestela irakurri.

• **Eta etxetik kanpo?**
Kirola egitea asko gustatzen zait. Takarraran, bizikletan, edozein kirol.

• **Ezkondua?**
Bai.

• **Seme-alabarik?**
Ez, oraindik ez.

• **Egunkari batean zer irakurtzen duzu?**

Lehenengo Euskal Herriko berriak. Gero, kulturara pasatzen naiz eta mundu mailako notizietara gero.

• **Ezagutzen duzu gure herria?**
Bai, Eskoriatzan magisteritza ikasitakoa naiz eta inguruko herriak ezagutzen ditut.

• **Zertaz damutzen zara?**
Heziketa fisikoko ikasketak ez burutzeaz. Magisteritza ikasten hasi nintzenean oraindik jartzeko zegoen.

• **Zergaitik borrokatuko zenuke mundu honetan?**
Gauza askogatik baina batipat Euskal Herrian bizi garenok hobeto bizi izateko.

• **Zerk ematen dizu amorrua?**
Ironiak eta zintzotasun ezak.

Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arriabe

loramendi
euskera elkarte



G



aur egun,
CVL lantegi-
tik begiratuta
ez dugu ar-
gazkian mo-
duko Aretxabaleta ikusten.

Herritar askoren gogoan gordeta egongo da argazki hau, garai bateko Errotazahar, eta baita Andra Mari parrokia eta Otalora jauregia ere ikus daitezke bertan.

Argazkia noizkoa den seguru jakiterik ez dago, baina Kutxaren fototekatik esan digutenez, 1940-50 bitartekoa izan behar du.

Esteban Gorroñok jakitera eman digunez, argazkian ageri diren Otalora eta Arratabe etxeek (gaur egungo udaletxea, argazkian ageri ez dena) Azatzen dute jatorria. Bertako Otalora eta Arratabe baserrikoek eraiki zituzten nonbait herrian ditugun eta balore haundikoak diren bi eraikuntza hauek.

Historiak urrunago ere jarraitzen du, Arratabeko alaba Gasteizko Otazunaz ezkondu eta geroztik Otazuna izenez ere ezagutzen dugu. Antzeko zerbait gertatu zen, Otalora jauregiarekin, Tablas izenez deitu izan zaio, bertako alaba Tablas generalarekin ezkondu zelako.

Begibistan dugun Errotazahar bestalde, izenak dioen moduan errota izan zen. Itxura denez Errotabarriko errota martxan jartzeaz bat hau gelditu egin zen. Felipe txiki Eskoriatzako ehulea bizi izan zen bertan.

Errotazahar leku estrategikoa zen. Alde batetik erreka bertan zuelako, eta baserrietatik zetozenendako kaleko lehen etxea zelako bestetik. Erreka bertan egoteak arazoak ere sortzen zituen ur haundiak etortzean. Behin baino gehiagotan, goiko leihoetatik irten behar izaten zuten etxeek.

Herriko makina bat emakumek Errotazahar ondoko eskilaratan behera jaitsita garbitzen zituzten erropak, errekan bertan. Eta ez hori bakarrik, Usitta eta Galartza aldeko lokats artetik kalera jeitsi ondoren, hor nonbait aldatzen zituzten baserritarrek oinetakoak, kalera txukuntxukun azaltzeko. Eliza osteko kantoia astoa uzteko lekua zen baserritarrentzat. Beste batzuk, orturako aprobeitatzeko zuten han pilatzen zen bekotz pila.

Bada argazkian ageri den beste eraikuntza bat ere, Otalora eta Errotazahar etxeen artekoa. Otalora jauntxoaren etxea zen moduan, hau zerbitzariena zen. Gerora Don Angel abadearen etxea izan zen.

Bitxikeria moduan, argazkia aterata dagoen lekua, gaur egun CVLko lantegia, zorua besterik ez zen orduan. Garaiko nekazal giroa garbi erakusten du argazkian ageri den lerak.

Informazioa: Esteban Gorroño

Argazkia: Loramendi Elkarteak Debagunek ateratako egutegian argitaratu duena. Iturria: Kutxako fototeka.

Hau beroa



Eguraldiak horrela jarraitzen badu lurra berotzen ari dela esaten dutenei arrazoa emateaz gain, Euskaltzaindiaren ez ohiko bilera ere ekar dezake honek. Hilbeltza, otsaila... ez dira izen aproposenak eguraldi honetarako. Martxa honetan telebistan "Kurro Euskal Herrira joan da" ikusiko dugu.

Baina beroak ez digu atxabaltarroi lan egiteko gogoia kendu eta horren erakusgarri dira herriko hainbat talderen ekintzak eta sorrerak. Herrian sortu den talde bat Saretxo dugu. Informatikaren inguruan sortu den taldea da eta partaideak: **Alberto Izagirre, Jon Axpe, Paulo Bengoa** eta **Iñigo Gonzalez** dira. Ea Internet hori zer kristo den erakusten diguten.

Eta zeharo gai desberdinekin jarraituz, Arrasaten Arrazakeriaren lehen gazte astea ospatu

dute eta antolatzaileetarikoa bat **Eider Otxoa** izan da. Orain ere atxabaltarrak Mondragoe aldean gabiltza.

Mondraueko kontuekin jarraituz, Aukea sariak banatu dira eta **Matilde Garaik** aipamen bereziaren saria jaso du. Arrasateko Txirrindulari Elkarteari berriz taldeko saria eman diote. Taldeko zuzendariak atxabaltarrak ditugu: **Josu Estevez** eta **Eneko Garai**. Hauez gain, herriko hiru txirrindularik ere parte hartu zuten iaz taldean: **Roberto Fraile, Jose San Migel** eta **Iban Sastre**. Aurtengo denboraldian azken honek bakarrik jarraitzen du.

Txirrindulari kontuekin jarraituz, **Mikel Roldan** Altsasuko taldera joan da, lehen urteko afizionatu mailan korritzera.

Futbol kontuak aipatuko ditut jarraian. UDAko kadete taldeko **Iban Rodriguez** atezain arrasatearrak, 15 urte azpiko Madrilan egin den pre-selektzioko kontzentrazioan hartu du parte. Euskadiko selektzioko partaidea ere bada eta hemendik aurrera Espainiakoan ere jokatu du agian.

Korrika kulturala dela eta Kakabaldo antzerki taldeak "Nueva Zaragozako herritarrak" lana antzetzuko du martxoaren 15ean. Antzetzleen artean **Kepa Errasti** atxabaltarra dago.

Bueno, eguraldi onak zapatu arte irauten badu, emakumeon eguna hobeto ospatuko dugu. Emakumeok merezi dugu eta.

A R E T X A G A Z O K A

<p><u>LANA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Neska euskalduna 2.REM arteko klase partikularrak emateko gertu dago. Harremanetarako telefonoa: 79 32 64. (eguerditan deitu). • Neska euskalduna behar da taberna lanetarako. (945) 44 50 86. • Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsaldez edo gauzez. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili). 	<p><u>ETXEBIZITZA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Garajea salgai dago Lausitan. Tfnoa: 79 80 72. Deitu ordu 2etatik getara. • Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20. • Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62. 	<p><u>DENETARIK</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Urrezko kataia bat aurkitu zen abenduan. Deitu 79 01 05 telefonora. • Palestinar painuelo bat agertu da kultur etxean. Jabea pasa dadila kultur etxetik hartzen. Eskerrik asko. • Abenduan egin zen intsumiso egunean, urrezko pultsera bat galdu zen tabernetan. Deitu: 77 11 45.
--	---	---

- Lur hiztegi entziklopedikoa salgai dago., estrenatu barik. Tfnoa: 79 78 26. (goizez 10etatik ordu 1etara, arratsaldez 4etatik 9etara).
- Opel Ascona markako kotxea salgai. Ate bikoa, egoera onean eta prezio ekonomikoan. Tfnoa: 79 43 05.

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



EL AMOR TIENE DOS CARAS

ZUZENDARIA: Barbra Streisand
AKTOREAK: Rose Morgan (Barbra Streisand), Jeff Bridges (Hannah Morgan), Lauren Bacall (Henry Fine), George Segal (Claire) Mimi Rogers (Alex), Pierce Brosnan (Doris), Brenda Vaccaro (Candy).

Rose eta Gregory irakasleak dira unibertsitate berean. Gregoryk bere maitasun erlazioengatik asko sufritu du eta neska lagun baten bila dabil, errespetua eta laguntasuna emango diona. Rose eta Gregory elkarbizitzeko adostasun batera heltzen dira. Sexu harremani baino garrantzi haundiagoa emango diote euren erlazio intelektualari, oinarrizko giza harremanak alde batera utziz. Baina maitasunak bi aurpegi dituela konturatuko dira, guzti honek nora eramango dituen ez dakiten bitartean.

Barbra Streisandek komedia dibertigarria eta hunkigarria eskainiko digu.

Z A R A I A Z I N E M A

Martxoak 7, 8, 9, 10

EL AMOR TIENE DOS CARAS

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astlehena: 10,15

Martxoak 9 (Umeentzat)

MAGIA EN EL AGUA

Martxoak 14, 15, 16, 17

EL AMOR PERJUDICA SERIAMENTE LA SALUD

OSKAR

HARATEGIA
 Loramendi, 1
 ☎ 79 71 69

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
 kroasantegia
 Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

Etxabe harategia

Durana 4
 ☎ 79 16 61

Liburu berriak

Literatura:

- Collins, Michael

Catrasto

- Cooper, Dennis

Tentativa

- Ford, Richard

El día de la Independencia

- Jacq, Christian

Ramsés : El hijo de la luz

- Maalouf, Amin

Las escalas de Levante

- Maupin, Armistead

Historias de San Francisco

- North, Darian

En busca del pasado

- Posadas, Carmen

Cinco moscas azules

- Seth, Vikram

Un buen partido

- Sinoué, Gilbert

El libro de zafiro

- Tabucchi, Antonio

Réquiem/Sueños de sueños &

Los tres últimos días de

Fernando Pessoa

- Valdés, Zoé

Sangre azul

Haur-gazte literatura

- Abel, Simone

Etxabereak bilduma

- Gripe, María

Kakalardoak iluntzean

helgaldatzen dira

- McEwan, Chris

No me digas que no lo ves

- Prévert, Jacques

Ume txintxoak ez diren

umeendako ipuinak

- Stine, R.L.

Pesadillas saila

- Walt Disney

Itxaslamia....

Joseba Lopez de Armentia

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Aretxabaleta

**Bedarreta
taberna**

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**Mobiliario
ARENAZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

OTSAILA

8

zapatua

ESKIATZERA IRTEERA

Murrukixo M. E.ak antolatuta Luz
Ardidenera eski irteera martxoaren 8
eta 9rako.

ZINEA

Zaraia zineman "El amor tiene dos
caras" pelikula. Gaueko 10,15etan.

9

domeka

ZINEA

Zaraia zineman "El amor tiene dos
caras". Arratsaldeko 7,30etan eta
gaueko 10,15etan. Umeentzat, "Magia
en el agua" arratsaldeko 5etan.

10

astelehena

ZINEA

Zaraia zineman "El amor tiene dos
caras". Gaueko 10,15etan.

13

eguna

BERBARIKO BATZAR OROKORRA

Loramendiko lokalean arratsaldeko
7etan.

14

egukotxa

ZINEA

Zaraia zineman "El amor perjudica
seriamente la salud" pelikula. Gaueko
10,15etan.

KANTU AFARIA

Korrika kulturalaren barruan
Loramendi elkartearen eskutik gazteei
zuzendutako **KANTU AFARIA**.
Uratz alde elkartean izango da eta
apuntatzeko Loramendi elkartean edo
Arlutz tabernan egin daiteke.

15


zapatua

KONTZERTUA

Azkoitiako Iraurgi Abesbatzak
Aste Santuko kontzertua eskainiko du
Andra Mari parrokian iluntzeko
8,15etan.

ANTZERKIA

Korrika kulturalaren barruan
udaletxeak antolatuta, **Kakalaldo**
antzerki taldeak "Nueva Zaragozako
herritarrak" antzezlana antzetzuko
du. Zaraia zineman gaueko 10,30etan.

OPEL 

■ **Kotxe marka guztien
konponketak**

■ **Zerbitzu guztiak**

Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala



Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 79 62 65 • ARETXABALETA

16
domeka

MENDI IRTEERA

Zaraia M. T.ak ALTZADIRA egingo du irteera.

ZINEA

Zaraia zineman "El amor perjudica seriamente la salud" pelikula gaueko 10,15etan.

17
astelehena

KORRIKA

Arratsaldeko 5ak inguruan helduko da Arrasate aldetik.

ZINEA

Zaraia zineman "El amor perjudica seriamente la salud" pelikula gaueko 10,15etan.

Aretxabaletako telebista martxan dela badakizue. Hori dela eta, telebistarako izen aproposik okurritu ezker, proposamenak Loramendi Elkarteak herriko denda eta tabernetan ipiniko dituen buzoietan, Aretxagazetaren buzoian edo Loramendiren egoitzan utz daitezke. Animatu! Zurea aukerakoa izan daiteke eta.

KORRIKA 10

Martxoaren 17an, astelehenez helduko da gure herrira. Arrasate aldetik etorriko zaigu arratsaldeko 5ak inguruan.

Euskal Herria korrika!



20
eguna

**LORAMENDI ELKARTEKO
BATZAR OROKORRA**

Arratsaldeko 7,30etan Loramendiko lokalean. Bazkideen parte hartzea eskatzen da.

**ARETXAGAZETAKO EZ OHIKO
BATZARRA**

Gaia: **Aretxabaletako komunikabideak: Aretxagazetako estatutoen aldaketa.** Arratsaldeko 7,30etan udaltxeko pleno aretoan.

21
egukotxa



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Étxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi E.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

2.395.000
Pta.tik aurrera

Mondeo



Galaxy

3.090.000
Pta.tik aurrera



MUGARRI



Araba Etorbidea, z/g. • ARRASATE • Tfnoak.: 79 07 44/54 • Faxa: 79 62 54